



AFAGI

1go Fasea: Zer egin dezakegu?



Zein leku daude baimenduta?

- Edozein bide edo esparru publikotan, baita **natur-eremuetan** eta **berdeguneetan**.
- **Mendira joan daiteke** edo bestelako kirolak ere egin daitezke (esate baterako, txirrindularitza), baita autoa erabilia ere, norbere udalerrian edo ondokoan, banaka edo etxekoekin.

- **Baimenduta** dago **terrazetan** **elkartzea**. **Gehienez** ere **10 pertsona** elkartu ahal izango dira mahai bakoitzean edo mahai multzo bakoitzean baina aforoa % 50 murriztuta, ziurtatu beharko da gutxienez bi metroko tarteak utziko dela mahaien artean. Ordu-tegi-muga bakarra ixtekoa da, 23:00ak.

Mugikortasuna eta zirkulazio-askatasuna

Lehenengo fasean pertsonak bide edo eremu publikoetatik zirkulatu ahal izango dute 0 fasean baimendutakoaz gain:

- Txikizkako merkataritza eta zerbitzuetara joateko, salbuespena dira 400 metro karratutik gorako azalera dutenak.
- Jendearentzako ordutegia ezartzean, **lehentasunezko ordutegia** ezarri beharko dute **65 urtetik gorakoentzat**.
- Baimendutako establezimendu eta lokaletako **joan-etorriak** **norbere udalerrian** edo ondokoan egin beharko dira; produktu edo zerbitzu horiek **norbere udalerrian** edo ondokoan **eskura ez badaude**, **urrunago joan daiteke**.



NORMALTASUN BERRIRAKO TRANTSIZIO-PLANAREN

1. FASEA

Herritarrak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoen artean mugitu ahal izango dira adinekoak, mendekoak, desgaituak edo premia-egoeran dauden senitartekoak bisitatzeko, zaintzeko eta artatzeko, bai eta antzeko beste edozein arrazoirengatik ere.

Zein dira kirola egiteko eta paseoak emateko ordutegiak?

Banaka edo norbaitek lagunduta, eurekin bizi den pertsona batekin, bere ardura duen etxeko langile batekin edo zaintzaile ofizialarekin atera ahal izango dira. norbera bizi den udalerrian bertan eta ezarritako ordutegietan.

- 14 urtetik gorakoentzat, 06:00etatik 10:00etara eta 20:00etatik 23:00etara.
- 70 urtetik gorakoentzat eta mendekotasuna duten eta haiekin bizi den norbaitek lagunduta atera behar duten pertsonentzat, 10:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 20:00etara.

5.000 biztanletik beherako udalerrietan ez da ordutegirik ezarriko, eta aipatutako jarduerak guztiak 06:00etatik 23:00etara egin ahal izango dira.





Osasun-arazoak dituzten pertsonak atera al daitezke etxetik ezarritako ordutegietatik kanpora?

Bai, baldin eta jarduera zehatz bat egin beharra ezartzen duen mediku-ziurtagiria edo -frogagiria baldin badute erakusteko.



Zeintzuk dira lurreko garraioan ibilgailuetan joan ahal izateko baldintzak?

- Bederatzi plazara arteko **ibilgailu pribatuetan** ilara bakoitzeko **persona bakarra** joan daiteke, **diagonalean**, eta **ez da derrigorrezkoa maskara** erabiltzea. **Ilara bakoitzean bi pertsona** joateko aukera ere badago, **baina kasu horretan aurpegiko maskara eraman behar dute.**
- Etxebizitza berean bizi diren pertsonak ibilgailu berean joan ahal izango dira, eta **ez da derrigorrezkoa izango maskara** erabiltzea.
- Bidaiarien **garraio bide publikoetan** erabiltzaile guztientzat izango da **nahitaezkoa aurpegiko maskarak erabiltzea**. Bidaiarien artean gutxienez metro eta erdiko distantzia, egon behar da derrigorrean.

Etxe barruan onartuta al daude harreman sozialak talde txikitik?

Ez dira baimentzen seniartekoen arteko edo/eta lagunaren arteko bilerak etxeetan.

Beilak, kultu-tokiak, eta hileta-zeremonia zibil eta erlijiosoak.

- Baimenduta daude era guztietako instalazioetan, eta **gehienez 15 pertsona** elkartu daitezke **leku irekietan** eta **10 pertsona leku itxietan**.
- **Hildakoa lurperatzeko edo errausteko agurra egiteko** zeremonietan **gehienez ere 15 senide edo adiskide** egon ahal izango dira, eta, hala badagokio, hildakoak agurtzeko hileta-errituez arduratzen den kasuan-kasuko kultu-zerbitzaria edo horren antzekoa.
- **Kultuko lekuetara joan ahal izango da baldin** eta aforoa herenera murrizten bada.

Edonola ere, osasun-agintariak ezarritako segurtasun- eta higiene-neurriak errespetatu beharko dira:

1. Bi metroko tartea utzi beharko da.
2. Esku garbiketa
3. Maskararen erabilera

- **Hilerrietara joan ahal izango da** senide eta lagunak omentzera eta agurtzera, dagokion udalak ezarritakoari jarraituz.